

NAhita

Septiembre 2012ko Iraila
Nº 17.zbk

Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailaren argitalpena Publicación del Departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Ermua

BELDUR BARIK LEHIAKETA 2012



%100 paper birziklatua. Kloro eta zuritzaila optikarik gabea.
Papel 100% reciclado. Sin cloro ni blanqueantes ópticos.



www.beldurbarik.org



FEMINICIDIO



CONCURSO BELDUR BARIK
PREMIO ERMUA

EMAKUMEOK ETA EROTIKA: NIRE PLAZERRAGATIK, NIRE PLAZERRARAKO (8 ORDU) / MUJERES Y ERÓTICA: POR Y PARA MI PLACER (8 HORAS)

5 y 6 de octubre. VIERNES de 16:00 a 20:00 h y SÁBADO de 10:30 a 14:30 h.
Irakaslea: Saioa Hernández · **Matrikula: 5 Euro**

Sexualitatea errealitate soziala eta personala da. Tailer honetan sexu-identitateak zelan ari diren eraikitzen gaur egun ezagutuko dugu, emakumeen sexu-desio eta -proiektu personala aintzat hartuta batez ere. Sexualitatea merkaturatzearen ondorio sozialak, pertsonalak eta harremanekoak aztertuko ditugu (emakumeak desio-objektu moduan, emakume-gorputzen ukapena...). Horrez gain, emakumeek gizarte honetan emakume-errotasunerantz, plazer erotikorantz eta eta bizi-kalitateerantz bidea zabaltea nola lortzen duten ikusiko dugu.

La sexualidad es una realidad tanto social como personal; con este taller conoceremos cómo se construyen las identidades sexuales, valorando los deseos y proyectos sexuales personales de las mujeres. Se analizarán las consecuencias sociales, personales y relacionales de la comercialización de la sexualidad (las mujeres como objeto de deseo, la negación de los cuerpos femeninos...) y se conocerá cómo consiguen las mujeres caminar hacia la felicidad emocional, el placer erótico y la calidad de vida en esta sociedad.

KRISIAN EGOTEKO GARAIA (12 ORDU) / TIEMPO PARA ESTAR EN CRISIS (12 HORAS)

Del 16 de octubre al 20 de noviembre. MARTES, de 18:00 a 20:00 h.
Irakaslea: Inma Merino · **Matrikula: 5 Euro**

Krisiak eta doluak egoera eraldatzeko aukera moduan ikusiko ditugu ikastaro honetan, bai eta egunerokotasunaren bide nahasiak ere: nola sartu, nola zeharkatu eta nola irtetzen garen. Prozesu honetan doluak landu beharko ditugu: ez dagoenari, komeni ez zaigunari edota gure bizitzatik desagertu denari agur esan, eta gure bizitzako garai bat amaitu dela onartu. Horrela, garai berrietara irekiko dugu geure burua, orain arteko bizi eta ikasi dugunaren ezagutza gehituz.

En este curso se abordarán las crisis y los duelos como oportunidades de transformación, así como los laberintos de la vida cotidiana: cómo nos introducimos en ellos, cómo recorrerlos y cómo salir. Y que en este proceso hemos de elaborar duelos, despedirnos de lo que ya no está, no nos conviene o desaparece en nuestra vida, o simplemente de una etapa que ha concluido. Es así como nos podemos abrir a nuevas etapas, incorporando el conocimiento de lo vivido y aprendido.

ZER GAUZA DAKI ZURE GORPUTZAK ZUK (ORAINDIK) EZ DAKIZUNA? (15 ORDU)

¿QUÉ SABE TU CUERPO QUE TÚ NO SABES (AÚN)? (15 HORAS)
Del 10 de octubre al 7 de noviembre. MIÉRCOLES, de 17:30 a 20:30 h.
Irakaslea: Patricia Verdés · **Matrikula: 5 Euro**

Badakigu gure gorputza emakumezko-gorputza dena... Ba al dakizu zer esan nahi duen horrek zuretzat? Badakigu gure gorputzak baliozko jakinduria daukela barruan... Entzuten al diozu? Aipatutako ziurtasun eta galdera horietan datza gure osasunaren zati handiena, emakume-itxura hartzen duen osasuna, hain zuzen. Tailer honetan, horren guztiaren inguruan hausnarketa, saiakuntzak eta azterketak egingo ditugu, gure gorputzaren neurriko osasun-jardunbideak sortzeko, emakumeen osasun-mugimendutik sortutako ezagutza, jardunbide eta baliabide ez androzentrikoetan oinarrituz.

Sabemos que nuestro cuerpo es de mujer... ¿Sabes qué significa eso para ti? Sabemos que nuestro cuerpo guarda una sabiduría preciosa... ¿Sabes escucharla? En estas certezas y preguntas que tenemos se juega gran parte de nuestra salud, una salud que toma cuerpo en femenino. En este espacio nos haremos preguntas, experimentaremos e investigaremos con la intención de generar prácticas de salud a la medida de nuestros cuerpos, apoyándonos en conocimientos, prácticas y recursos no androcéntricos gestados desde el movimiento de salud de las mujeres.

PRESTAKUNTZA-ETA PARTAIDETZA-GUNEA ESPACIO DE FORMACIÓN Y PARTICIPACIÓN

BESTELAKO EKINTZAK / OTRAS ACTIVIDADES

KULTUR IRTEERA / SALIDA CULTURAL: URRIAREN GAN (LARUNBATA) / 6 DE OCTUBRE (SÁBADO)

Donejakue bidea kostaldetik (6 km) eta Castro Urdiales hirigunetik bisita gidatua Camino de Santiago (6 kms) y visita guiada por casco histórico de Castro Urdiales

KULTUR IRTEERA SALIDA CULTURAL · BERDINTASUNERAKO UDAL KONTSEILUA CONSEJO MUNICIPAL DE IGUALDAD · ELKARTEAK ASOCIACIONES · SOLASALDIAK ETA ERAKUSKETAK TERTULIAS Y EXPOSICIONES · HITZALDIAK ...ETA ABAR CHARLAS...ETC.



Galdetu Emakumeen Topalekuan eta PARTE HARTU! Pregunta en la Casa de la Mujer y ¡PARTICIPA!

Más información en la microsite de Igualdad: http://www.ermua.es/pags/igualdad/ca_espacio_formacion.asp

Editoriala

Amaitu berri diren Londresko Joko Olinpiarretan emakumeak egon dira nazio guztietako ordezkarien artean, bai eta Kuwait, Catar, Brunei eta Saudi Arabiakoetan ere, nahiz eta lau herrialde horiek emakumeak joko olinpiarretan parte hartzearen kontra azaldu diren. Aurrerapauso bat da, baina neska kirolari horiek etxera itzultzen direnean eguneroko zailtasunei eta emakume kirolarien kontra hitz egiten dutenei aurre egiten jarraitu beharko dute, kirolak "neskatoen birjintasuna konprometitzen" eta "bekatua-aren aurrean ahulago bilakatzen omen ditu emakumeak". Joko olinpiarretan arrakasta handia lortu arren, emakumeen kirolak errealitate latzari aurre egin beharko dio berriro ere leku guztietan: hedabideek kasurik ez egiteari adibidez, kirol gutxi batzuentzat erreserbatuko baitituzte espazioak (gizonezkoen kirolak, noski!), kirol gaitako erabaki-leku eta karguetan oso emakume gutxi egoteari, laguntza publiko eta pribaturik ez edukitzeari...

Emakumeek bete ditzute Olinpiaden inguruko udako albisteak: Espainiako ordezkariak lortutako 17 dominatetik, 11 emakumeek lortu zituzte, hots, % 65. Baina berdintasunaren ilusio bat besterik ez da izan berriro ere, zeren emakume kirolariak beraien kirol-jardueratik bizi ezinik jarraituko baitute, gizonezkoekiko diskriminazio garbian. Eta oraindik ere bada berdinkeria joaldi batean emakume eta gizonen lorpenen artean ez litzakeela bereizketarik egin behar esaten duenik, guztiak berdin balio beharko luketelako. Bada, hori ez da horrela, zeren errealitatea ez berdina da inola ere, ez kirolan ez eta beste ezertan.

Azter dezagun, adibidez, genero-parekotasunaren indizea, zeinak berdintasun gaitetan Espainiak atzera egin duela erakusten duen. Indize horrek sexuen arteko ezberdintasuna neurtzen du ondorengo arloetan: hezkuntzan (eskolaratzea eta alfabetatzea), partaidetzan eta ekonomi jardueretan (diru-sarrera eta enplegua) eta jabekuntzan (eragina eta erantzukizuna), eta indize horren arabera herri batek ere ez du lortu maila "onargari"rik. Espainian emakumeek gizonek baino gutxiago irabazten dute antzerako lanetan (%22 gutxiago), eta zaintza-lanak ezkutatuta jarraitzen du, batez ere emakumeen gain eta inolako ordainsaririk jaso gabe. Atzerapauso bat izango da bai eta ere Abortuaren Legearen erreforma berria, guztiz mugatuko duelako emakumeek sexu eta ugalketa-eskubideez gozatu ahal izatea.

Berdintasunak ezin du atzerabiderik. Guk borrokan jarraituko dugu..

En los ya acabados Juegos Olímpicos de Londres ha habido mujeres en todas las delegaciones nacionales, incluidas las de Kuwait, Catar, Brunei y Arabia Saudí, los cuatro países que aún se resistían. Es un avance. Lo cierto es que esas deportistas volverán a casa y se seguirán enfrentando a las dificultades cotidianas, a las voces que arremeten contra el deporte femenino, que "compromete la virginidad de las niñas", dicen, "y hace en general a las mujeres más vulnerables al pecado". En todas partes, a pesar del éxito olímpico, el deporte femenino se enfrentará de nuevo a la dura realidad: el silencio de los medios, que seguirán reservando sus espacios a unos pocos deportes (por supuesto, masculinos); la escasez de mujeres en los puestos de decisión del ámbito deportivo; la falta de ayudas públicas y privadas...

Las noticias olímpico-veraniegas han estado copadas por las atletas: de las 17 medallas logradas por la delegación española, 11 han sido logradas por ellas, el 65% de los metales. Así que hemos asistido nuevamente a un espejismo de la igualdad, porque las mujeres deportistas seguirán sin poder vivir de su actividad, en clara discriminación respecto a sus colegas masculinos. Y todavía hay quien, en un ataque de "igualitis", defiende que no se debería diferenciar entre logros femeninos y masculinos porque todos deberían valer lo mismo. Pues no es así. Porque la realidad no es, ni de lejos, la misma.

Ni en el deporte, ni en otras dimensiones. Analicemos el Índice de Equidad de Género, por ejemplo, que muestra que España ha comenzado a retroceder en materia de igualdad. Este índice mide la disparidad entre sexos en tres dimensiones: Educación (escolarización y alfabetización), Participación y Actividad económica (ingresos y empleo) y Empoderamiento (influencia y responsabilidad) y ningún país ha alcanzado el nivel de Aceptable. En España, las mujeres siguen ganando menos que los hombres en trabajos similares (un 22% menos), y el trabajo de cuidados sigue invisibilizado, atribuido de forma casi exclusiva a las mujeres, y no retribuido. También será un retroceso la anunciada reforma de la Ley del Aborto, que restringirá de forma grave las garantías para que las mujeres disfruten plenamente de sus derechos sexuales y reproductivos.

La igualdad no puede estar en retroceso. Nosotras seguimos estando en movimiento.

>> EZAGUTZEN AL DUZU...? ¿CONOCES? <<<

BEE/APAI

EUSKAL HERRIKO BERDINTASUNERAKO ERAGILEEN ELKARTEA

ASOCIACIÓN PROFESIONAL DE AGENTES DE IGUALDAD DEL PAÍS VASCO



Berdintasun-agente talde txiki batek 2003an sortutakoa, 33 bazkide ditu gaur egun: 31 emakume eta bi gizon. Herri erakundeetan (udalak, diputazioak eta Eusko Jaurilaritza) eta enpresa pribatuan -baina gutxiago, noski- prestatu eta/edo ari dira lanean berdintasun-agente zereginetan. Ermuko Emakumeen Topalekuan biltzen dira, berdintasunerako gune-sinbolikotzat hartzen dute eta.

El fin de la asociación es promover y defender la figura profesional de Agente de Igualdad y unas condiciones dignas de trabajo, pero también tiene otros objetivos. Entre ellos, crear y mantener un espacio de formación y encuentro e intercambio, analizar los temas que les afectan, organizar actividades y foros de debate... con la igualdad de mujeres y hombres como fin. Sus funciones van encaminadas a avanzar en la definición de la profesión, favoreciendo el desarrollo profesional y elaborando y proponiendo recomendaciones a posibles entidades contratadoras.

Trabajan en estrecha colaboración con otras asociaciones profesionales de ámbito estatal (participa en la FEPAIO: Federación Estatal de Asociaciones Profesionales de Agentes de Igualdad de Oportunidades) y muy unidas al movimiento feminista y asociativo de mujeres, así como a diferentes entidades y agentes sociales.

Elkarte honetan administrazioan, elkarteetan, aholkularitza-enpresetan... edo enpresa pribatuetan berdintasun teknikari lanetan ari diren pertsonak biltzen dira, bai eta lan-eremu horretan enplegua aurkitu nahi duten pertsonak ere.

Harremanetan jartzeko helbidea: apaipaisvasco@yahoo.es.
Ba du blog-a ere: <http://asociacionapai.wordpress.com/>

ERMUKO IZARRAITZ ZURIA GRUPO DE TEATRO DE MUJERES

20
URTEURRENA
ANIVERSARIO


Izarraitz taldea Emakumearen Sustapenerako Zentrok lkasle Ohien Elkarteak sortu zuen, 1991n antzerki-ikastaro bat egin ondoren. Soilik emakumez osatutako antzerki-talde bat da.

El pasado mes de mayo de 2012 celebraron su veinte aniversario. El teatro les ha servido para superar vergüenzas, para ver y leer más teatro con un sentido crítico y, sobre todo, ha sido un instrumento para visibilizar la presencia de las mujeres y su protagonismo en los escenarios y en la vida cultural del pueblo.

Ekimen honen bitartez, jendearen aintzatespena eta txaloak lortzeko aukera izan dute antzertokietan, eta beraien balioaz ohartzeko, ondo pasatuz aldi berean.

Continúa siendo un grupo referente de participación y representación de mujeres, y siguen trabajando, aunque se quejan de que hay pocas obras escritas para ser interpretadas únicamente por protagonistas femeninas.

Bi hamarkada hauetan zuzendari ezberdinak izan ditu taldeak, eta hamabost obra eta egokitzapen antzertu dituzte zuzendari horien gidaritzapean, adin guztietako 30 emakumek baino gehiagok parte hartu duelarik.



Tú también puedes participar, si quieres.
Contacta en la Casa de la Mujer.

Aldarrikatzeko eta ospatzeko egunak ♀
Días para celebrar y reivindicar

irailak 28 septiembre: Día internacional de la despenalización del aborto
urriak 15 octubre: Día internacional de las mujeres rurales
urriak 19 octubre: Día internacional contra el cáncer de mama
azaroak 25 noviembre: Día internacional contra la violencia hacia las mujeres

FEMINICIDIO: LA EXPRESIÓN MÁS EXTREMA DE VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES



FEMINIZIDIOA: EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ADIERAZPENIK GOGORRENA



>> PONER DE RELIEVE LA EXISTENCIA DE UNA GRAVE VIOLACIÓN DEL PRINCIPAL DERECHO DE LAS MUJERES, EL DERECHO A LA VIDA, A NIVEL MUNDIAL

Uno de los grandes retos del siglo XXI es la erradicación de la violencia machista. Para ello, debemos empezar por visibilizar, denunciar y luchar contra la forma más cruenta de violencia contra las mujeres: el feminicidio.

Se trata del asesinato sistemático de las mujeres por el hecho de ser mujeres y es cometido por hombres. Este concepto sirve para poner de relieve la existencia de una grave violación del principal derecho de las mujeres, el derecho a la vida, a nivel mundial, porque se trata de un fenómeno de carácter social, sostenido por una cultura patriarcal, machista y androcéntrica, donde la vida de las mujeres no tiene valor.

Alrededor de 400 mujeres y niñas han sido asesinadas y más de 70 siguen desaparecidas en lugares como Ciudad Juárez y Chihuahua, México, desde 1993. Si bien es cierto que los países latinoamericanos están a la cabeza en cifras relativas a asesinatos de muje-

res, no debemos olvidar que, como se ha señalado, el feminicidio es una barbarie que no distingue entre países del norte y del sur, ni clases sociales, ni origen étnico. De hecho, fueron 106 las mujeres asesinadas en el estado español a lo largo del año 2011 por violencia machista.

La académica feminista Marcela Lagarde, etnóloga y doctora en antropología, ha realizado una investigación comparativa sobre los feminicidios en México, Guatemala y el estado español y llega a la siguiente conclusión: "La mayor parte de las mujeres y niñas asesinadas comparten una situación de discriminación en los tres países, aunque en grado distinto: eso es lo común. La discriminación contra las mujeres que prevalece en nuestros países va acompañada por una gran desvalorización de las mujeres. Pero no sólo es la misoginia, también el lugar de colocación de las mujeres en la sociedad que hace que las mujeres estén en riesgo de recibir violencia. A los hombres, además, se les permite ser violentos, en rangos y grados distintos... En todo este cuadro complejo de convivencia entre los géneros es donde se gesta la violencia sobre todo de hombres contra mujeres".

El 25 de noviembre, Día Internacional Contra la Violencia hacia las Mujeres, nos recuerda la existencia de feminicidios a nivel global y simboliza la lucha por la eliminación de las diferentes formas de violencia contra las mujeres por el simple hecho de ser mujeres.



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ

XXI. gizaldiko erronkarik handienetako bat indarkeria matxista desagerraraztea da, erotik kentzea. Horretarako, emakumeen kontrako indarkeriarik krudelena, feminizidioa, agerian utzi, salatu eta berorren kontra gogor borrokatu beharra daukagu.

Feminizidioa emakumeen hilketa sistematikoa da, emakume izate hutsagatik. Berori gizonak egiten dute.

Emakumeen eskubiderik oinarritzkoena, hots, bizitzeko eskubidea, mundu osoan larriki urratzen ari dela agerian jartzeko balio du kontzeptu horrek, zeren berori gizarte-fenomeno bat da, kultura patriarkal, matxista eta androzentriko batetan oinarritutakoa, non emakumeen bizitzak deusik balio ez duen.

1993tik hona 400 emakume eta neskatila inguru hil dituzte, eta 70 baino gehiago desagertuta daude oraindik, Ciudad Juárez eta Chihuahua (Mexiko) bezalako lekuetan. Emakumeen hilketa kopururik handienak latinoamerikar herrietan badaude ere, ez dugu ahaztu behar feminizidioa, adierazi bezala, iparra eta hegoa, gizarte-maila edo arraza bereizten ez dituen basakeria bat dela, izan ere 2011n 106 emakume hil ziren Espainian indarkeria matxistaren ondorioz.

Marcela Lagarde akademiko feminista, etnologo eta antropologiako doktoreak ikerketa-lan konparatibo bat egin du Mexiko, Guatemala eta estatu espainiarreko feminizidioen artean eta honako ondorioa atera du: hildako emakume eta neskatilarik gehienak diskriminazio egoeran daude hiru herrietan, baina diskriminazio-maila ezberdina da; horretan hiru herriak berdinak dira. Gure herrialdeetan dagoen emakumeen kontrako diskriminazioa emakumei inolako baliorik ez emateagatik gertatzen da, baina ez da misoginia-kontua bakarrik, emakumeek gizartean duten lekuaren arazoa ere bada, non emakumeek indarkeria jasateko arriskuan dauden. Gizonei, gainera, biolento izaten uzten zaie, maila eta gradu ezberdinetan... Indarkeria generoen arteko egoera konplexu horren baitan sortzen da, batez ere gizonena emakumeen kontra.

Azaroaren 25ak, Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Nazioarteko Egunak, feminizidioa mundu mailako arazoa dela ekartzen du gogora eta, emakume izate hutsagatik, emakumeen kontrako indarkeria-mota guztien deuseztapenaren aldeko borroka sinbolizatzen du.

CONCURSO BELDUR BARIK LEHIAKETA


NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

Beldur Barik ideia bat
daukazu?
Jarri zaituz martxan!
www.beldurbarik.org

Muéstranos
tu actitud SIN MIEDO

Tienes una cita en Ermua,
el 22 de Noviembre, en Lobiano.
FESTIVAL BELDUR BARIK

Eta azaroaren 24an, 3.
Beldur Barik Topaketan
elkartuko gara



¿CUÁL ES TU ACTITUD BELDUR BARIK? ¡MUÉSTRALA!

- Si me miras el móvil, si no quieres que salga con mis amigas, si cuando me pongo escote dices que voy provocando... no me respetas. ¿Que sin ti no soy nada? De eso nada. Sin ti... soy yo.
- Desde pequeñas nos han dicho: "No andes sola, que te va a pasar algo". Estamos hartas de vivir con miedo.
- Delgada/con michelines; minifada/vaqueros; tacones/playeras. Cada una tiene su cuerpo y su estilo, todos son bellos.
- Maite tiene novio; Fátima novia; Peio se ha enamorado de un chico; María prefiere ligar sin ataduras. Queremos vivir la sexualidad en libertad, sin juicios ni culpas.
- Somos chicos pero no machitos. Las agresiones y las bromas sexistas son algo muy serio y no las aceptamos.
- En clase, en casa, en la discoteca, en la cuadrilla... cada día nos encontramos con formas de machismo y de violencia hacia las mujeres.

Preguntas
GALDERAK

Indarkeria sexistaren aurkako programa honek lehiaketak, topaketak eta hezkuntza-ekimenak suspertzen ditu, gazteen jabeakuntza prozesua indartzeko.

Beldur Barik es una iniciativa puesta en marcha por la red de municipios Berdinsarea, entre los que se encuentra Ermua, para fomentar la igualdad, el respeto, la autonomía y la libertad entre las y los jóvenes

- 1 Zuk zer uste duzu? Indarkeria matxista zuek bezalako gazteen artean ere badagoela ala nagusien artean bakarrik dagoen arazoa dela?**
¿Crees que la violencia machista se da también entre jóvenes como vosotras/os, o que eso es algo que sólo se da en la gente mayor?
- 2 Gazteen artean ere jarrera matxistak mantentzen direla pentsatzen duzu? Zein jarrera matxista ikusten duzu zuk gazteen artean?**
¿Crees que se siguen manteniendo actitudes machistas entre la gente joven? ¿Qué actitudes de violencia machista suelen darse entre jóvenes?
- 3 Zure ustez, gazteek erabili ohi dituzten hedabideetatik (gizarte-sareak, telebistako serieak iragarkiak, abestiak...) mezu matxistak eta indarkeriazkoak zabaltzen dira? Zer nolako mezuak iristen zaizkizue indarkeria matxistaren inguruan?**
¿Crees que se lanzan mensajes machistas y de violencia contra las mujeres desde los diferentes medios a los que la gente joven tiene acceso (redes sociales, series de televisión, anuncios, canciones...)? ¿Qué tipo de mensajes os llegan sobre la violencia machista?

SANDRA ARIAS
21 urte

1. Jende gazteen artean indarkeria matxista ere badago, gero eta gehiago
2. Bai. Gazteen artean ematen den indarkeria psikologikoa da, eta okerrena da normalizatzen hartzen dugula.
3. Askotan bai zabaltzen dutela mezu matxistak, batez ere, abestiak: mezu matxistak agertzen dira eta larriena da jendea ez dela horretaz konturatzen. Jendeak ez du halako indarkeria sinbolikoa ikusten.

LIDIA JIMÉNEZ
17 años

1. Se da más en la gente mayor, también entre jóvenes.
2. Sí. Las actitudes machistas se ven en comentarios que oyes en la calle, en chistes, en las canciones, en los anuncios que vemos... Y también se da violencia física o agresiones sexuales en jóvenes.
3. Sí, se siguen lanzando esos mensajes, sobre todo en las canciones que oímos cuando salimos de fiesta: la mujer aparece siempre como un objeto y no se la valora por otras cualidades.

OLATZ SANTOS
17 urte

1. Bai.
2. Bizitza eta jendearen ongizatea da garrantzitsua. Zaintza-lana betetzen dugunok ondo dakigu hori, inportanteena dela.
3. Aldrebesko mundua izango zen. Ez zen funtzionatuko.

AMAIA ARRONDO
16 años

1. Creo que es más habitual en la gente mayor pero se empieza a dar también desde que se es joven.
2. Sí. Por ejemplo cuando una chica se lia con muchos chicos se dice que es una "guarra" pero si lo hace un chico se dice que es "el puto amo".
3. Sí, por ejemplo en las canciones de regatton las mujeres aparecemos como objetos y en algunos anuncios también. Además, los anuncios de limpieza siempre van dirigidos a las mujeres, como si lo de casa fuera algo que tenemos que hacer solo nosotras. Todavía no hay igualdad entre hombres y mujeres.

PASATIEMPOS

DENBORAPASA >>

ASMATU!

¡ADIVINA!



Aspaldiko lagun bat kalean ikusi nuen. Eliteko hegazkin pilotua da bera eta bost bat urte neramatzan neure lagunaren berririk gabe. Nire harridurarako, ume batekin zegoen. Hiru bat urteko umea zen, zoragarria. Nik ez nekien laguna ezkondu zenik, ezta ezkontzekotan egon zitekeen ere, eta horregatik harritu nintzen. Umea berea al zuen galdetu nion. Hark, baietz. Izena ere galdetu nion, galdetzen hasita. «Amarena, iguala», erantzun zidan lagunak. Orduan, nik, zera esan nion umeari: "Kaixo Nekane!". Izugarri ondo konpondu izan naiz beti adin horretako umeekin... baina hori da gutxienekoa. Kontua da umearen izena Nekane zela. **Eta, galdera, berriz, honako hau da: nola arraio jakin nuen nik hori?**

Umeak amaren izena du. Nire laguna -eliteko pilotua- izan ere ... emakumea da. Nekaneren ama, beraz, Nekane bera ere.

ERANTZUNA

¿Cómo se puede ser padre sin tener hijos?

Teniendo hijas
RESPUESTA

Noticias de interés

ALBISTE INTERESGARRIAK

>> BELDUR BARIK 2012

Berdinsarea convoca la tercera edición del programa Beldur Barik, que este año 2012 lleva por lema "Hamaika jarrera, hamaika aukera!" cuya primera acción es el concurso dirigido a promover actitudes positivas de respeto, libertad, igualdad y de prevención de la violencia sexista en las relaciones entre chicas y chicos jóvenes. Ermua participa en esta iniciativa y cuenta, además, con un festival y un premio por categoría de edad a nivel local. Más información en la página de Beldur Barik <http://www.beldurbarik.org/2012/06/beldur-barik-ermuan/> y en la microsite de igualdad del Ayuntamiento de Ermua http://www.ermua.es/pags/index/ca_detallenoticia.asp?id=4252

>> VIRGINIA WOOLF BASQUESKOLA

Euskadiko ehun bat alkate eta zinegotzi andrekin izan den nazioarteko jardunaldian, EUDELeK prestakuntza-eskola berria aurkeztu du "Virginia Woolf Basqueskola" izeneko, non Emakundek eta Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak parte hartzen duten. Eskolak, printzipioz, abendura arte iraungo du, eta bertako eta nazioarteko emakume hautetsien toki-maillako sarekiko harremana bultzatuko da. Euskadiko udaletan erantzukizun politikoa duten emakumeek parte hartu ahal izango dute eskolan. "Virginia Woolf Basqueskola" izena Ingalaterrako idazle ospetsuaren izenean eta idazle horren "Gela propioa" (1929) lanean inspiratuta dago. Informazio gehiago eskuratzeko: <http://www.emakunde.euskadi.net/>

>> ELLAS CREAN

"Ellas crean" es el título de un blog en el que se puede encontrar información sobre mujeres que han destacado en el ámbito del arte y la creatividad: pintura, escultura, poesía, cine... El objetivo principal de este blog es el de visibilizar y reconocer el trabajo de mujeres artistas y promocionar sus obras. Además, se ofre-

ce información interesante sobre libros, exposiciones y otros blogs relacionados con la temática. Más información en: <http://ellascrean.blogspot.com/es/>

>> BATERATU +

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak, Bateratu Uztartzearen alde onak webgunea zuzentzen du, enpresak, sindikatuak, langile autonomoak eta soldatapeko langileak, lana, familia eta bizitza pertsonala bateratzeko formazioa eta hausnarketa-gune bat izan dezaten. Motibazio, irudimen eta malgutasunarekin, lana, familia eta bizitza pertsonalaren bateratasuna hobetu daitekeela azpimarratzen da webgune honetan, eraginkorragoa eta lehiakorragoa izateko. Informazio osoa eskuratzeko <http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.net/>

>> DECIDIR NOS HACE LIBRES

Se ha creado una plataforma, formada por multitud de organizaciones de ámbito estatal, autonómico y local, en defensa de los derechos sexuales y reproductivos y para luchar por evitar los retrocesos en este tema, bajo el lema: "Decidir nos hace libres. Los derechos sexuales y reproductivos son derechos humanos". Toda la información en <http://www.decidirnoshacelibres.org/>

>> NAZIOARTEKO KONGRESUA

Emakundek Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko Nazioarteko Biltzarra antolatuko du 2012ko urriaren 17, 18 eta 19an Euskalduna Jauregian, Bilbon. Emakume eta gizonen berdintasunaren aldeko politika publikoek lortutako aurrerapenei buruzko memoria egitea du helburu biltzar honek. Horretarako, erakundeen, hainbat eremutako administrazioen, mundu akademikoaren eta mugimendu feministaren arteko elkarrizketa sustatuko du. Biltzarrari eta izen-emateari buruzko informazio eguneratua www.congresopoliticagualdad2012.com web orrian dago.



- > **Edita Argitaratzen du:**
Departamento de Igualdad del Ayto. de Ermua
Ermuko Udalaren Berdintasunerako Sailak
- > **Redacción Erredakzioa:**
Begoña Fernández, Idoia Carracedo,
Zaida Fernández, Olga Bayón y Eva Carballal.
- > **Coordinadora Koordinatzailea:**
Begoña Fernández
- > **Realización Egilea:**
La Central B.E.

*Si quieres recibir la revista en tu domicilio, solicítalo en la Casa de la Mujer.
Aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, Emakumeen Topalekuan eskatzea besterik ez daukazu.
Se autoriza el uso de estos textos siempre que se mencione su procedencia.
Testu hauen erabilera baimentzen da, beti ere iturria aipatuz.*

CASA DE LA MUJER / EMAKUMEEN TOPALEKUA
Izelaieta kalea, 12 - 48260 ERMUA
Tfnua: 943 171 030 · Faxa: 943 170 123 · E.posta: casadelamujer@udalermua.net
web: www.ermua.es

